



4 ZINEMA

Itsaspeko zinema
otsailean Manuel
Lekuonan

Munduko zenbait itsasotan grabatutako irudi ikusgarrietaz pantaila handian eta doan gozatzeko aukera izango da Lasarte-Orian Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko II. Zikloan. Azken urteotan urpean grabatutako filme ikusgarrietariko batzuek eskainiko dira otsailaren 4, 11 eta 18an arratsaldeko 19:30etan kultur etxeko areto nagusian, besteak beste Indonesia, Guadalupe eta Tailandian grabatutakoak.



Parte-hartze atalak web gune berria izango du aurrerantzean. Udalaren logo berria hautatzeko elkarteekin lehen bilera egin zen ondoren Manuel Lekuonan.



5 ELKARTASUNA

Mugikorren bilketa
arrakastatsua egin
da Lasarte-Orian

Angelman sindromea elkarrekin urrian "Eman estaldura zure mugikor zaharrarekin" kanpaina martxan jarri zuen, gaixotasuna ikertzeko dirua biltzeko asmoz. Lasarte-Orian Manuel Lekuona kultur-etxean jaso dira geroztik mugikorrak eta tableta. Asteartean Manuel Lekuonan izan ziren elkarteok euren mugikorra bertan utzitako herritarrei eskerrak emateko. Angelman sindromea ezohiko gaixotasuna da eta ekimenak hau ezagutzera emateko lagundu du.

Web berria aurkeztu zuen Alaitz Mendizabal Parte-hartze batzorde buruak atzo. "Denbora honetan herritarrengana kartelen, esku-orrien, prentsa, eskutitz zuzenen bidez iritsi gara eta komunikazio bide gehiago ireki asmoz, sarea baliatu nahi izan dugu".

Egunetik egunera sarearen erabilpena handitzen ari dela konturatuta, udalak eman beharreko beste pausu bat zela aipatu zuen.

Horregatik, eta herritar gehiengoarengana iristeko, "denbora falta aitzaki izan ez dadin" parte hartze departamentuak jarri du martxan bere weba, izan ere, udalak badu gune ofiziala www.lasarte-oria.org eta kultura sailak ere www.lasarteoriasarean.eu.

Egunerokotasuna

www.partehartzea.lasarte-oria.org -k udalak herritarren parte hartzea kontu errazetan azkartuko duten galdeketa egiteko aukera ematen du eta parte hartze ekimenen berri emango du gaurtik aurrera.

Arrazoi ezberdinengatik sarearen bidez komunikatzen direnei erantzuteko gunea ere izango da.

Horretaz gain, herritarren proposamenak bertatik helarazi ahal izango dira eta gai ezberdinen inguruan foroak sortzeko aukera emango du. Udala eta herritarren arteko harremanari "egunerokotasuna ematen zaio".

Webaren diseinua berriz, "orrialde garbi eta erabileraza egiten saiatu gara, edonork erabilzeko aukera izan dezan".

Logoa hautatu

Web berrian galdeketa udalaren logo berria da. Honek aukeraketa prozesuan parte hartu dezakete herritarrek gustukoena dutena bozkatzuz astelehenean aurrera.

Bart, herriko elkarteetako ordezkarien epaimahaia osatu zen. Lehiaketan 74 parte-hartzailek aurkeztu dute euren logoa eta hauetatik, dokumentazio falta dela eta 69 geratu dira. Hauek dira Manuel Lekuonan egingo den erakusketan egongo direnak otsailaren 4tik 14ra bitartean.

Helburua herritar guztiek iritzi emateko aukera izatea da. Horretarako bi taldeetan banatu da parte hartze hau, maila pertsonalean herritarrek bozkatzeko aukera dute eta baita taldean ere, herriko elkarte epaimahaian.

Webgune berrian bozka emateaz gain, erakusketan bertan esku orri bat bete eta logotipoaren ezizenarekin parte hartze postontzian sartu ahal izango da.

Udaletik azpimarratu nahi izan dute "ez dugu irudi ponpoxoena aukeratu nahi, denok onartu eta gure sentituko dugun irudi bat baizik".

Egutegia

Urtarrilaren 17an udal alderdi politikoaren ordezkariak osaturiko mahaia osatu eta dokumentazioa banatu zen.

Atzo elkarte eta taldeen ordezkariak epaimahaia osatzeko bilera egin zen eta honetan metodologia azaldu eta irudien proiektzioa egin zen.

Otsailaren 4tik 14ra erakusketak publikoak egin eta bozkatu ahal izango da, baita interneten. Otsailaren 7an berriz, alderdien ordezkariak bigarren bilera egingo da eta egun berean, elkarte eta taldeetako ordezkariak.

Bakoitzaren hautaketarekin otsailaren 21ean lan hoberearen rankinga osatuko da.

Azken emaitza martxoaren hasieran emango da. Udalak lehiaketa deserta gera daitekeela azaldu zuen.

Parte-hartze tresna berria

Udalak web gune berria martxan jarri du parte hartzea sustatzeko

Parte-hartze prozesuan informazioa eman eta herritarrekin komunikazio bideak zabaltzea du helburu Lasarte-Oriako udalak eta honakoa ahalbidetzeko, herritarren eskura ahalik eta tresna gehien jarri nahi ditu. Horretarako jaio da www.partehartzea.lasarte-oria.org



Zuregandik hurbil

943 37 78 68
www.ventanasalcar.com

**Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2.
(Lehengo Doble J)**





ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
(Lehengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA
Ibaiondo, 4
erdisotoa 5-A

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com
www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarrai gaitzazu Facebooken!
gure jarraitzaile artean,
laister hasiko gara
opariak banatzen

Me gusta






Neure kabuz



Ane Labaka
Txistuak

“Zuek ezpazerate kontentu errua ez daukat ez nik, txistuak jo dituzte bainan maite zaituztet oraindik”. Xalbador. 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusia, Anoetako pilotalekua.

2013ko urtarrilaren 14a. Sevil-la. Wert ministroaren konferentzia izan behar zuena. Ez gaude kontentu. Zure errua da. Bai, asko maite zaitugu. Txistuak, oiuhak eta txistu gehiago.

Egin froga interneten, hasi erreformari buruzko informazio eta iritzi bila eta azpimarratu gehien errepikatzen diren hitzak; hezkuntza atzerakoa, unimorfoa eta berzentralizatua.

Baina denen artean Agirreza-balaren hitzak egin zaizkie nire belarriei gordinen: “Jose Ignacio Wert espainiar ministroak aurkez-tutako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko lege aurre-proiektua euskararen eta eskal hezkuntza sistemaren aurkako erasorik larri eta handiena da”.

Zenbat urte Euskal Eskola Nazionala aldarrikatzen, beste zenbait ezaugarri izateaz gain, guztiz euskalduna izango zen hori irudikatzen. Ohikoa delako tama-lez, EHUu lau urteko karrera bat euskaraz egitea hautatu eta hiru-garren mailara iristean zuk egin nahi duzun hautazko ikasgaia gaztelaniaz soilik eman zenezakeela jakitea. Edo Euskal Ikasketetako graduko lehen urtean euskara lotsagarri diharduen irakasle bat entzun behar izatea asteen lau orduz. Orain arteko egoerak horrelako eta antzerako adibideak barne hartzen zituen. Hori jakinda, nolakoa izango da Wertek norabidetzen duen egoera berria?

Zapalkuntzaren aurka eta maite dugunaren alde egiteko beharra sentitzen dugu beste behin. Horregatik, txistuak zuretzat Wert jauna, oraindik euskara maite dugunon partez, txistuak.

Zorion agurrak



Mikel

Zorionak txapeldun zure laugarren urtebetetzean familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Maitane

Zorionak Maitane Dinbi Banda guztiaren partez. Aste honetan gominolak zure kontu!



Idoia eta Mari

Zorionak!!! Ahaztuko ginela uste al zenuten? Ongi pasa zuen eguna eta kontuz zoroekin.



Karla eta June

Hona hemen... etxea poztasunez betetzen dutenak!! Ondo pasa eta milaka muxu zuen familiaren partetik. Zorionak printzesatik!!



Eider

Zorionak! Bete urteak lasai, Dinbi Bandak gaztetu egiten du ta! Dinbi muxu pila bat!




Irati

Zorionak neska handia!! Bost muxu handi aitaxo eta amatxoren partetik



Paula

Zorionak printzesa zure 5. Urtebetetzean. Muxu asko Mario, amoni eta osaben partetik.



Jon

Zorionak zure seigarren urtebetetzean eta ondo pasa. Muxu erraldoi pila. Maite zaitugu.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxea alokatzen da Blas de Lezon, altzarietako bizitzera sartzeko moduan. Harremanetarako telefonoa, 678 018 894.
- Garaje itxia alokairuan Geltoki kalean. Kokaleku ona. Harremanetarako telefonoa, 615 720 367.
- Garajea itxia alokatzen da Nagusia 69 zenbakian. 70 euro dira. Harremanetarako telefonoa, 943 575 964.
- Garaje itxia alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Interesatuak daudenak deitu 655 721 774 telefonora.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. Harremanetarako telefonoa, 648 614 769

Lan-eskariak

- Neska arduratsua eskaintzen da haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Ordu-tegi malgua eta erreferentziak diru. Telefono: 616 736 645
- Neska orduka lan egingo luke arratsaldez ume edo adinduen zaintzan, garbiketa lane-tan... Harremanetarako telefonoa, 636 859 655
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo hel-duak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Negutegietan, garbitzaile edo frutarekin lana egingo nuke. Harremanetarako telefonoa, 625 423 540

Heriotzak Jaiotzak

Heriotzak

- Miguel Artola Elberdin, urtarrilaren 29an, 81 urte zituela.
- Imanol Ancizar Eguilegor, urtarrilaren 24an hil zen, 57 urte zituela



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 1 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 2 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 3 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 4 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astearte, 5 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 6 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 7 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

- Geriatrian laguntzaileak, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua, gaixok edo minusbaliatuak zaintzeko eskaintzen da. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.

Bestelakoak

- DBH mailako ikasleei klase partikularrak emateko prest nago. Ordu-tegi malgua arratsaldetan. Harremanetarako, 695 737 330.
- Urtarrilaren 2lean haur manta galdu zen Beko kalen, kiroldegi eta osasun zentro artean. Arkaitz izena du bordatua. Aurkitu duenak dei dezala 616 333 017 zenbakira. Pili.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arribi, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA



Iñaki Mugica eta Jesus Zaballos, PSEren egoitzan, atez ateko sistemaren aurkako eta 5. edukiontzia alderdiaren aldeko kartelaren ondoan.

Zaballos, bosgarren edukiontzia jartzeko batzordeko lehendakari

Gipuzkoako esperientziak aztertuko dituzte egokiena aukeratzeko Argi utzi du atez ateko sistema zabaldu ez dadin lan egingo duela

PSE-EEko Jesus Zaballos aukeratu zuten aurreko ostiralean Lasarte-Orian hondakin organikoak biltzeko 5. edukiontzia jartzeko ardura izango duen udal batzordeko lehendakari. Asteazken goizean Iñaki Mugica zinegotziarekin batera emandako prentsaurrean adierazi zuenez, batzordearen lehenengo lana Gipuzkoan edukiontzia marroiak jarri diren herrietako esperientziak aztertu eta Lasarte-Oriarako sistemarik egokiena aukeratzeko izango da, auzoz auzo azaldu eta pixkanaka martxan jartzeko.

Bostgarren edukiontzia martxan jartzeko batzordearen lehendakari aukeratu zuten Jesus Zaballos aurreko ostiralean PSE-EE, EAJ eta PPko ordezkariak, batzorde berriaren lehen bileran.

Jesus Zaballosek asteazken goizean prentsaurrekoan nabarmendu zuenez Udala batzarrak 5. edukiontzia jartzeko erabakia hartu eta sei hilabetera, "PSE-

EEK behin eta berriro erreklamatu ondoren, azkenean, alkateak ostiralean deitu zuen lehen bilera, batzordea osatu eta lehendakaria aukeratzeko".

Udal Gobernuak batzordeari traba gehiago ez jartzeko espero duela adierazi zuen PSE-EEko ordezkariak, "sortzeko sei hilabete behar izan dituela eta martxan jartzeko 2012ko aurrekontuan aurre-

kusita zeuden diru-kopuruak ez direla gauzatu ikusita".

Bestalde, Zaballosek argi utzi nahi izan zuen, 5. Edukiontzia jartzeko batzordeko lehendakari izateagatik dagozkion 881,88 euroak ez dituela jasoko, "Zerbitzu Publikoetako Batzordeko lehendakari Prieto andereak, jasotzen duen bezalala". "PSE-EErentzat garrantzitsua ez da hori, baizik eta hiri hondakinaren arloan zorrotz lan egitea", gehitu zuen.

Zaballosen iritziak, batzordea beharrezkoa da hiri hondakinaren Gipuzkoako eta Lasarte-Oriako arazoei irtenbidea emateko. "Bilduk Gipuzkoako herrietan martxan jarri nahi duen atez ateko sistemaren aurka gaude eta sistema eraginkor gisa bostgarren edukiontzia aldatzea aztertuko dugu".

SuBerriren kontzertua bihar

SuBerri Akordeoi Orkestrak Streinaldiko kontzertua emango du bihar, larunbata, otsailaren 2an, San Pedro elizan 19:00etako meza bukatutakoan.

SuBerri iaz sortu zen, eta egun hamahiru musikaririk osatzen dute Elias Goikouriarren zuzendaritzapean.

Bere ibilbide laburrean, iaz hiru emanalditan hartu zuen parte, Donostian, Azpeitian eta Andoainean, Europako eta Euskadiko dantzari-bikote txapelak izan diren Amaia Gonzalez Caballerorekin eta Joxe Mari Orbegozorekin elkarlanean.

Musika estilo guztiak

SuBerri era askotako estiloak jotzen ditu, jazz, zarzuela, akordeoirako idatzitako musika, euskal musika, eta hauen



SuBerri akordeoi orkestraren aurkezpena ekainean egin zuten.

adibide batzuk entzun ahal izango dira larunbatean.

Bestelako artista, taldeekin elkarlanean aritzeko asmoa duela azaltzen du taldeak, hala nola abesbatza, euskal dantza-taldeekin, dantza garaikideko taldeekin eta bestelako musika-taldeekin, akordeoiaren alderdi musikal

guztiak ezagutzera emateko.

Herriko akordeoi orkestra berriak bere streinaldirako prestatu duen programan hamaika obra daude eta horietako hirutan, Pilar Catalina eta haren alaba Amaia Lizarraga soprano lasarteoriarren laguntza izango du orkestrak.

OPORRAK BAKEAN

Harrera familien bila

Haur sahararrak Lasarte-Oriako kaleetan barrena ikusi ohi ditugu udan, Oporrak Bakean programaren barnean etortzen dira hona 8-12 urte bitarteko neska-mutil gazteak harrerako familia bat zain dutela. Aurten ordea, larri dabilta familiak aurkitzerako orduan, bi edo hiru harrerako familia behar dituzte

Ume sahararrak etxean hartzeko interesa duena Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuekin (943 37 61 79) edota herriko Sahararen Lagunen Udala Elkartearekin (607 501 797) harremanetan jar daiteke. Bestalde, twitter (@saharalasarate) eta facebook (facebook.com/sahara.lasarteoria) kontuak ere jarri dituzte abian ekimena zabaldu asmoz. Email bidez (saharalasarate@gmail.com) ere jar daiteke harremanetan Sahararen Lagunak taldearekin. Herriar guztiak animatu nahi dituzte esperientzia "ahazteazinean" parte-hartzeko.

SANTA AGEDA

Erketzen EDT-ren entsegua

Urtero legez, Erketz EDT Santa Ageda bezperan aterako da kantuan. Hau prestatzeko ostiralean 20:00etan entsegua egingo dute Zumaburu ikastetxean duten lekalean.

LASARTEARRA ELKARTEA

Mus txapelketarako izena ematea

Lasartearra elkarteak bere bazkide eta lagunei jakin arazten die, XXXVI. Mus txapelketan parte hartzeko izena ematea ireki dela. Izena eman nahi dutenek elkartera hurbildu behar dira, otsailaren 20a baino lehen.

UDALTZAINAK

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoetik jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, lau betaurreko graduatu, patinete bat, neskati baten poltsua eta diruzorroa eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

KONTSUMO KOOPERATIBA

Uztaro kide berriak hartzeko prest

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsua bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratzak, Beizaman kokatua dago eta Lasarte-Oriaz gain beste herrietako hainbat jende ere, parte hartzen du kooperatiban. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta fruitak, garaiak garaioak eta ekologikoak.

Uztaro kooperatibaren funtzionamendua asanblada bidezkoa da. Hilero biltzen da eta bertan, kide guztiak parte hartzen dute kooperatibaren jarduerari buruzko iritzia eman, ardurak hartuz eta noizbehinkako baratzeko lanak egiteko.

Barazkiez gain, beste ekoizle ekologikoekin harremanetan dute eta hainbat produktu ekologiko erosteko antolatzen dira kideak, besteak beste laranjak, arrautzak, ogia, gazta, ezta...

Egun, 15 otar dira Lasarte-Orian eta kooperatiban 45. Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabali dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

HHI

Ingeles mintza praktika saioak

Ingelesez hitz egiteko ikastaroa antolatu du EPAk. Ikastaroa Usurbilgo eskolan egingo da otsailaren hasi eta ekainera bitartean. Astearte eta ostegunetan izango dira saioak eta bi talde osatuko dira, lehenengoak 17:00etatik 18:00etara eta bigarrenak 18:00etatik 19:00etara. Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko EPA Lasarte HHIko telefono zenbakietan egin daiteke 943 37 64 43 eta 943 36 66 08.

Itsasoko irudi ederrak pantaila handian

- ▶ *Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko II. Zikloa otsailaren 4tik 18ra burutuko da Manuel Lekuonan izango da Lasarte-Orian Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko II. Zikloan. Azken urteotan urpean grabatutako filme ikusgarrietariko batzuek eskainiko dira otsailaren 4, 11 eta 18an arratsaldeko 19:30etan Manuel Lekuonako areto nagusian, besteak beste Indonesia, Guadalupe eta Tailandian grabatutakoak. Euskal Herrian egindako zenbait filme labur ere eskainiko dira.*

Munduko zenbait itsasotan grabatutako irudi ikusgarrietaz pantaila handian eta doan gozatzeko aukera izango da Lasarte-Orian Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko II. Zikloan. Azken urteotan urpean grabatutako filme ikusgarrietariko batzuek eskainiko dira otsailaren 4, 11 eta 18an arratsaldeko 19:30etan Manuel Lekuonako areto nagusian, besteak beste Indonesia, Guadalupe eta Tailandian grabatutakoak. Euskal Herrian egindako zenbait filme labur ere eskainiko dira.

Jon ALTUNA IZA

Astelehen eguerdian aurkeztu zuten Manuel Lekuona kultur etxean Danok Kide guraso elkarteak, Udaleko Kultura Sailak eta Real Sociedad-eko Itsaspeko Sailak elkarlanean antolatu duten Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Boris Nogales Udaleko kultura Departamentuko arduradunak aurkezpenean adierazi zuenez, iazko lehen esperientziaren arrakastaren ondoren beharrezko ikusi dute berriro zikloa antolatzea.

Horrela, datoren astelehenean hasita hiru astetan munduko hainbat itsasotan, urpean, grabatutako filmeak eskainiko dira arratsaldeko 19:30etan. Sarrera doan izango da eta 60 minutu inguruko saio bakoitzean, lehenengo filme laburrak eskainiko dira eta ondoren filme luzea. Gero, gainera, ikusleek adituei galderak egiteko aukera izango dute.

Saritutako pelikulak

Real Sociedad taldeko Nano Cordovilla urpekariak nabarmendu zuenez, honelako zikloetara denetarik ekartzan saiatzen dira, bai nazioarte mailan sariak jaso dituzten filmirik ikusgarrienak, bai Euskal Herrian grabatutako zenbait pelikula labur.

Antolatzaileek adierazi zuten, pelikula guztiak gaztelaz emango dira, "Hondarribia" filme laburra izan ezik. Otsailaren 4an emango da "Hondarribia" kostaldeko herri honetan grabatutako 5 minutuko filma. Nano Cordovillaren iritzi, "maila ikusgarria ez badu ere bi helburu betetzen ditu filmeak, gure kostaldeko irudiak eta euskaraz izatea".

Ondoren, lehenengo saio horretan, Peter Schneider zinemagilearen "Ai Futaki" film laburra eskainiko da. Japonian marrazoekin grabatutako irudiak dira.

Eta azkenik Bluescreen taldeak iaz Donostiako Nazioarteko zinemaldian aurkeztu zuen "Thailandia" pelikula luzea ikusi

da. Irudi ikusgarriak grabatu dituzte Tailandian, Indiar Ozeanoko koraletan, bizitza osoa itsaspeko grabaketa lanetan diharduen eta iaz "Lo imposible" pelikulan lan egin zuen taldeak. Hainbat itsas espezie berezi ikusiko dira, besteak beste, leopardo marrazoak, manta arrainak, itsas sugeak eta gubxitan ikusten den pipa mamu arrain txikia, bertako koralezko hiri oparoetan.

Bermeoko irudiak

Hurrengo astelehenean, hilaren 11n, beste hiru filme eskainiko dira.

Donostian saritu zuten Peter Schneider-en "Cry for Love" izurde basatiekin grabatutako film laburra; "Mina Mari, altzairuzko oasia", Andoni Asenjo euskaldunak Bermeotik gertu grabatutako filma eta Christian Petron frantziarraren 47 minutuko "Guadalupeko Tiburoi Zuriak" pelikula.

Azken bi filmeak azpimarratu zituen Nano Cordovilla antolatzaileak. Batetik Donostian euskal dokumental onenaren saria jaso zuen "Mira Mari": "Bermeoko portutik hiru miliara hondoratuta den ontziaren ingurua, 30-35 metro ur azpian, leku ederra da urpekariarentzat, arrain asko ikusten dira eta sarri joaten gara. Andoni Asenjoren pelikulan, gure kostak, gure itsasoa eta gure historia ageri dira".



Nano Cordovilla Real Sociedad-eko urpekaria eta Boris Nogales Kultur zinegotzia Itsaspeko Zinema II. Zikloaren aurkezpenean.

Marrazo zuri beldurgarriak?

Bestetik, Marsellan munduko zinemaldirik garrantzitsuenen Urrezko Maskorra jaso zuen pelikula ere azpimarratu zuen Cordovillak. Guadalupeko marrazo zuriei buruzko filmeak animalia hauei buruzko mitoak apurtzen ditu, 47 minutuko filmean erakusten da "marrazo zuria beharrezkoak direla itsasoetako oreka mantentzeko eta ez dietela gizakiei eraso egiten".

Azkenik hilaren 18an bi filme eskainiko dira. Batetik, Donostian Itsaspeko Zinemaldian "Urrezko Barandilla" jaso zuen "Neskatala baten mezu" 5 minutu eta erdiko pelikula. Carlos Villoch euskaldunaren filmean, itsasoetako arazoa kontatzen du neskatxa batek.

Eta ondoren "Ondinesia" Bruno van Herck belgiarraren

50 minutuko pelikula emango da, urpekariaren paradisua den Indonesian grabatutakoa.

Ondinesian, han lanean diharduten enpresa espainiar

ren Ondina itsasontzia eta Polinesia lotzen dira, ontzi horretan 17.000 irla dituen Polinesia zeharkatzen dute, zenbait tokitan grabaketak eginez. Toki horiek dira munduan itsas espezie gehien dituztenak.

Itsasoa arriskuan

Aurkezpenean, bukatzeko, itsasoa arazo handiak direla eta zaindu egin behar dela nabarmendu zuten antolatzaileek, eta horretarako herriko haurrek itsasoaren edertasuna ezagutzearan garrantzia goraitatu zuten.

Nano Cordovilla urpekariak adibide bat jarri zuen, "3-4 kilo ganba hartzeko golde bat pasatzen dute itsasoaren azpian, eta hori 3-4 kilo onddo hartzeko Aralarreko arbolak moztearekin alderatu daiteke".

Kultur etxeko auditoriumean

Astelehena 4, 19:30etan
Hondarribia (5,00') Euskaraz
Ai Futaki (5,15') Peter Schneider
Thailandia (52,00') Bluescreen

Astelehena 11, 19:30etan
Cry for Love (5,15') Peter Schneider
Mina Mari (11,00') Andoni Asenjo
Guadalupeko Tiburoi Zuriak (47,00') Christian Petron

Astelehena 18, 19:30etan
Neskatala baten mezu (5,30') Carlos Villoch
Ondinesia (50,00') Bruno van Herck



Aurkezpenean izan ziren Danok Kideko Endika Amilibia eta Jose Luis Navarro, Real Sociedad-eko Nano Cordovilla eta Kultura Saileko Boris Nogales eta Xabier Goitia.

Elkartasuna banatzen

► Urrian “Eman estaldura zure mugikorrarekin” kanpaina jarri zuen martxan Angelman sindromea elkarteak ► Lasarte-Oriako Udalak herrian bildutako mugikorrak eman dizkio

Angelman sindromea ez-ohiko gaixotasuna da. Gipuzkoan gaur egun 6 edo 7 kasu daude. Angelman sindromea elkarteak urrian “Eman estaldura zure mugikorrarekin” kanpaina martxan jarri zuen, gaixotasuna ikertzeko dirua bildu nahian. Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur-etxean bildu dira mugikorrak eta tabletak.

Nerea EIZAGIRRE

Senideren bat gaixo duten elkarreentako kideek gaur egun dirua biltzeko hainbat bide bilatu dituzte. Azken aldiari erabiliena edo ezagunena, plastikozko botilen tapoi biltzeta da baina badira beste produktu mota bilgarri batzuk ere.

Esate baterako, Angelman Sindromea elkarteak urritik mugikorrak eta tablet zaharrak biltzen ari da Estatu mailan, Lasarte-Oria ere batu da kanpaina honetara.

Bilketa Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako Udalak azaldu digunez azaroan egin zuen bat “Eman estaldura zure mugikorrarekin” kanpainarekin.

“Lasarte-Oriako Udaleri babesa ematea eskatu zitzaion eta azaro bukaeran atxiki zen kanpaina honetara,” azaldu digu Boris Nogales Kultura saileko buruak.

Geroztik, Manuel Lekuona kultur-etxean mugikorrak eta tabletak bildu dira. “Kanpaina txikia egin da Udaletxeko langileen artean eta hainbat herritarrek ere parte hartu dute,” aipatu du.

Gauzak honela, asteartean Boris Nogalesek Joseba Antxiustegi eta Lourdes Palacio Angelman Sindromea elkarteak kideei Lasarte-Oria bildu diren 45 mugikorrak eman zizkien.

Joseba Antxiustegi elkarteak kideak azaldu zuenez, Estatuan 25.000 mugikorrak batu dituzte eta “gehienak Gipuzkoa eta Bizkaian ari gara biltzen,” azpimarratu zuen.

Eta “benetan jende zoragarria eta bihotz onekoa dago. Elkartearekin zer ikusirik ez duen jendeak kanpainari buruz prentsan edo irratiari entzun eta telefonoz deitu digu bere eskualdean mugikorrak biltzeko prest dagoela azalduz,” gaineratu du.



Boris Nogales Joseba Antxiustegi eta Lourdes Palacio Angelman sindromea elkarteak kideei mugikorrak ematen.

Ikerketarako dirua

Elkarteak kideek ekitaldian azaldu zuten, jasotakoak telefono konpainiei saldu eta Estatu Batuetan sindromea buruz egiten ari diren ikerketak garatzeko eta sendabidea biltzeko dirua eskuratuko dute. “Ez dugu dirua elkarrean biltzeko nahi, ikerketarako bai,” azaldu dute.

Izan ere, Josebak azaldu legez, gaur egun ikerketa bigarren fasean da. “Haurrekin probak egiten ari dira. Martxoan izango dituzte

emaitzak. Hauek onak badira, hirugarren fasea jarriko da martxan. Hau beste haur batzuei irekia izango da,” adierazi du.

Hala ere, zailtasunak egon daitezkeela azpimarratu du. “Agian ez da haur guzientzat baliagarria. Nahiz eta gaixotasun genetikoa izan, jatorri anitza du. Haur batzuei hamabostgarren kromosoma falta zaie, besteek kromosomaren eraldaketa bat dute...” azaldu dute Angelman sindromea elkarteak kideek.

Mobilak bildu

Nahiz eta Udalak orain arte bildutako mugikorrak eman dizkien, Angelman Sindromea elkarteak ez du kanpaina bukatutzat ematen.

Horregatik, elkarteak kideek lasarteoriarrekin gonbita egiten diete mugikorrak eta tablet zaharrak, funtzionatu edo ez, Manuel Lekuona kultur-etxean jarritako postontzian utzi ditzaten, baita Donostiako Udalean edo kultur-etxe desberdinetan jarri diren biltzaile puntuetan ere.

Angelman Sindromea eta ASA elkarteak

Angelman Sindromea Aneurogenetikoa da, bereizgarri kliniko oso definituak ditu eta hamabostgarren kromosomaren eraldaketarekin lotuta dago.

Sintomei dagokionez, atzerapen mental larria, hizketa eza, ataxia eta itxura pozgarria izatea dira nagusiak. Mikrozealia eta konbultsioak ere ohikoak dira. “Askotan garaun-paralisiarekin nahasten da dituen sintomengatik”, adierazi du Josebak.

20.000-30.000 jaio berrietatik bati eragiten dienez, ez-ohiko gaixotasuna da. “Gipuzkoan gaur egun 6 edo 7 kasu daude eta Euskadin 10 dira,” aipatu digute.

Horieta bat Lurdes Palacio lasarteoriarraren 12 urteko alaba, Lucia du. Joseba Antxiustegiren hiru urteko semeak Aitorrek ere,

gaixotasun arraro hau pairatzen du.

Elkarteak eta bere lana

“Sindrome de Angelman”-ASA elkarteak, 1996 urtean sortutako irabazi gabeko elkarteak da eta gaixotasun hau pairatzen duten familiei laguntzeko sortu zen.

Gaur egun, estatu osoko 150 familietatik gora osatzen dute elkarteak eta hainbat esparruetan egiten du lan.

Batetik, gaixotasuna pairatzen duten pertsonen integrazio soziala bilatzen dute.

“Nik nere alaba kiroldegira, parkera... eramaten dut eta berarekin herriko ekimenean parte hartzen saiatzen naiz berarekin. Era honetara, herritarrek urritasuna duten pertsonen egoera ezagutu eta onar dezaten” azaldu digu Lurdes Palacio lasarteoriarrak.



“Eman estaldura zure mugikorrarekin” kanpainako kartelaren bati bat.

Bestetik, elkarteak familiekin egiten du lan. Haurrekin babes informatiboa eta pertsonala ematen die eta familiei bizi kalitatea hobetzen saiatzen da.

Era berean, gaitzaren inguruan guraso, erakunde eta profesionalen aholkularitza ematen die; formakuntza,

ikerketa eta proiektuen elkartrukatzea sustatzen du; instituzio pribatu zein publikoekin lankidetzak, gaixotasun honen arazoak ulertzeko lan egiten du eta ikerketa desberdinetan eta modu internazionalen sindrome honekin harremana duten pertsona eta proiektu

tuen arteko elkar trukaketa sustatzen du elkarteak.

Gaixotasuna jakitera eman

Hau guztiaren gain, sindrome honen inguruan dagoen informazioa zabaltzen du eta herritarrei honen berri ematen die.

Era berean, hainbat kanpaina jartzen dituzte martxan. Azkena aipatutako “Eman estaldura zure mugikorrarekin” izan da.

Eta Josebak aipatu digunez, abenduaren 25ean Fortuna elkarteak antolatzen duen “Gabon Kontxapuzon” elkartasun ekimeneko diru biltzaile elkartearentzat izan zen. “Uretara sartu ginen hainbat eta hainbat donatzairekin batera,” adierazi du.

Gaixotasunari eta elkarteari buruzko informazio gehiago www.angelman-asa.org web orrialdean eskuratu dezakezue.

GIMNASTIKA.-

Lehiaketan garaia iritsi da

LOKEko gimnastak prest daude lehiaketan denboraldirako. Asteburu honetan Eskolarteko A maila eta amateur mailako lehen faseko saioa dute Bergaran.

Maita Rueda entrenatzaileak azaldu digunez lehen lehiaketa hau kontaktu saioa da. "Ezin da jakin zer aurkeztuko duten arerioek eta zein mailatan lehiatuko garen," aurreratu digu.

Eta sailkapena lortzea zaila izango dela aipatu du, "lehiakide asko dago. Kadete mailan 24 dira eta jubeniletan 13. Zaila izango da bai bakarka baita taldeka ere sailkatzea. Gainera, urtero lehiatzeako maila asko igotzen ari da".

Honela, bakarka zein taldeka lehiatuko dira Maite

Ruedaren neskak maila ezberdinetan.

Lehiaketako lanak

Bakarka kadete B mailan Ainara Apezteguia eta Ariane Aguado izango dira. Jubenil A mailan Aizpea Arroyo lehiatuko da eta bigarren urtez senior A mailan, Garazi Gomez gaztea egongo da.

Lehenengo lehiaketa honetan, kadete eta jubenil mailan, uztaiarekin egin beharko dute lan. Garazik berri, borrekin egindako lana aurkeztu beharko du.

Bestalde, kadete B eta jubenil B mailako taldeak ere izango dira Bergaran. Hauek bi lan aurkeztuko dituzte, kadeteek uztaia eta pilotarekin eta jubenilek uztaia eta borrekin.



Garazi Gomez iazko denboraldian borrekin egindako lana erakusten.

JUDO.-

Juniorrak ederki lehiatu ziren

Gipuzkoako txapelketan zilarrezko eta brontzezko domina

Junior mailako Gipuzkoako txapelketa izan zen lehengo asteburuan LOKEko mutilak ederki lehiatu ziren eta bi domina eskuratu zituzten. Bestalde, infantilak ere lan polita egin zuen Eskola Kirola egitasmo-ko sailkapenean.



Junior txapelketan eta Eskola Kirolako sailkapenean parte hartu zuten judoek.

Nerea EIZAGIRRE

LOKEko judoek Junior mailako Gipuzkoako txapelketa eta Eskola kirola egitasmo-ko bigarren sailkapen saioa izan zituzten urtarrilaren 26an larunbatean, Lezon. Gorka Aristegiren gazteak ederki egin zuten borroka eta bi domina ekarri zituzten herrira.

Zilarra eta brontzea

Lehenik, Gipuzkoako Junior txapelketa izan zen. LOKEko Esteban Martinez eta Josu Olmos gazteak bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren.

Esteban Martinezek 73 kilo azpiko mailan hiru borroka irabazi eta bat galdu zituen

eta zilarrezko domina eskuratu zuen. Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu digunez, "oso ondo aritu zen benetan".

Josu Olmosek eskuan izan zuen 60 kilo azpiko mailako bigarren postua, baina LOKEko entrenatzaileak adierazi digunez, "azken momentuan galdu zuen finalerako borroka". Eta ondoren, brontzezko domina eskuratu zuen.

Esteban eta Josuz gain, Fermin Balda eta Oscar Garrido kadeteak ere izan ziren txapelketan.

Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan, "Fermin Baldak oso borroka ona egin zuen. Baina epailearen eraba-

ki arraro baten ondoren galdu egin zuen. Denen iritzi bera zen irabazlea. Oscar Garrido, berri, ondo egin zuen baina ez zuen zortirik izan".

Hautentzako baliagarria izan zen txapelketa aste honetan duten kadete mailako Gipuzkoako txapelketarako.

Eskola kirola

Junior txapelketa amaitzerakoan, Eskola kirola egitasmo-ko infantil mailako sailkapen saioa izan zen.

Honetan, Talib Vergara eta LOKEan entrenatzen duen Eneko Eizagirre oriotarrak hirugarren postua lortu zuten bakoitzak bere mailan.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA**Larunbata 02**

Artia, Irun, 09:30ean

Behobia-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Michelin, 10:30ean

Ostadar-Danena Asteasu
Infantil txikia, kopa

Berio, Donostia, 12:00etan

Antiguoko-Ostadar
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Michelin, 13:50ean

Ostadar-Antigua Luberrri
Emakumezkoen maila

Ubitarte, Andoain, 15:30ean

Euskalduna-Ostadar
I. Erregionala, igoera

Michelin, 15:45ean

Texas Lasartearra-Segura
I. Erregionala, kopa

Michelin, 17:30ean

Ostadar-Hernani
Erregional Ohorezko maila

Ipintza, Bergara, 17:30ean

Bergara-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila

Igandea 03

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Antigua Luberrri
I. Infantilak

Puio, Donostia, 10:30ean

Vasconia-Ostadar
Futbol eskola, 2. urteko alebina

Michelin, 11:30ean

Ostadar-Texas Lasartearra
I. Kadetea, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 01

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

19:30ean, Urdaneta-Albaileria Vertical

20:20ean, Ana eta Soi ile-Balardi harategia

21:10ean, El Punto taberna-Ilargi taberna

Larunbata 02

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

10:30ean, Indaux-Izarra bitxitxegia

11:30ean, Ori kristaldegia-ISU Leihok

12:30ean, Izkia taberna-Txindoki taberna

13:30ean, Buenetxea taberna-Trumoi taberna

Kiroldegia, 17:00etan

Aldaz H.K.-Goierrri Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 02

Kiroldegia, 15:30ean

Ostadar-Añorga
Kadete neskak, partehartzea

ERRUGBYA

Ostirala 01

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Errugby eskolako maila guztiak entrenamendua dute.

Larunbata 02

Michelin, 12:20

Beltzak Ostadar Zarautz-La Rioja
Euskal Liga, kadeteak



Elorrio

Elorrio-Beltzak Ostadar
Infantil federatua

OHARRA: Autobusa 10:00etan

hartuko dute Zarautzko Asti zelaian.

Igandea 03

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Errugby eskolako benjamin, alebin eta eskolarteko infantilen entrenamendua.

OHARRA: kirol oinetakoak eraman.

PILOTA

Larunbata 02

Kirol guneke pilotalekua, 16:00etan

Intza-Allerru I Eskuz binaka, II. kadetea

Kirol guneke pilotalekua, 16:00etan

Intza-Azkoitia
Eskuz binaka, I. jubenila

Igandea 03

Ikastola, Elgoibar, 11:30ean

Lagunak-Intza Eskuz binaka, II. jubenila

ATLETISMOA

Larunbata 02

Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:30ean

Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta Lasarte IB ikastetxeetako alebin eta infantilek pistako eskolarteko lehiaketako proba konbinatueta eremuko bigarren jardunaldia dute.

Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 16:30etik aurrera

LOKEko eta herriko atletik Euskadiko txapelketako lehen jardunaldia dute.

Igandea 03

Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:30etik aurrera

LOKEko eta herriko atletik Euskadiko txapelketako bigarren jardunaldia dute.

IGERIKETA

Larunbata 02 eta Igandea 03

Madril

Buruntzaldea IKT-ko Iriego Ibarburu infantil mailako erkidego arteko Espainiako Txapelketan izango da Euskadiko selektzioarekin.

Tolosa, 10:00etan eta 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Neguko Gipuzkoako Txapelketa izango dute.

JUDO

Igandea 03

Lezo, goiza

LOKEko Fermin Balda eta Oscar Garridojudoka gazteek kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.

GIMNASTIKA

Larunbata 02

Labegarieta kiroldegia, Bergara,

10:00etatik aurrera
LOKEko gimnastek eskolarteko A mailako eta amateur mailako lehen faseko lehiaketa dute bakarka eta taldeka.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 02

Atsokabar parkea, 11:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako kideek alebin eta infantil mailako haurrekin saioa egingo dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 03

Aia, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak bikotekako txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko du.



Agenda

Igandea 3, 11:00etan, Atsobakar erresidentzia



Pertsona adinduen omenez

Danok Kide elkarteak eta Kultura sailak sustatuta, "Fabordon hirukotea"-ren emanaldia. Donizetti eta Beethovenen obra bana eskainiko dituzte. "Fabordon hirukotea" Carlos Rosat flauta jolea, Tomas Ruti fagot jolea eta Imanol Elizasu piano joleak osatuta dago. Hirukoteak pertsona adinduen omenaldi gisa, emanaldia eskaini nahi izan dute. Eta horretarako Atsobakar erresidentzia aukeratu dute. Musika klasikoak normalean iristen ez den lekue-tara eramaten du taldeak. Helburua musikaren mezuak pertsonen barne armonia osatzen laguntzea eta bere ongizatean eragin positiboa izatea.

Asteazkena 13, 17:00etan

PROSALUS elkarteak lagunak hitzaldia eskainiko dute.

Jaiak

LASARTE-ORIA
Astelehena 4

Santa Ageda bezperako koplak entzungo dira herrian eta inguruetako auzo eta baserrietan.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Hilabete osoa

PROSALUS elkartearen "Elikagaia izateko giza eskubidea" erakusketa ikusgai izango da.

Astelehena 04-Ostirala 14

Lasarte-Oriako Udalak irudi korporatibo berria aukeratzeko erakusketa jarri du Udalak. Herritarrek lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusi eta gustoko dituztenak bozkatu ahaliko dituzte.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 3, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "El origen de los guardianes" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Osteguna 7, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, "La pequeña Venecia" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 17, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Kiriku eta basapiztiak" marrazki bizidunetako filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

Urpeko Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 4, 11 eta 18, 19:30ean

Danok Kide elkarteak Real Sociedad kirol elkarteak urpeko sailaren laguntzaz II. Urpeko Zinema Zikloa eskainiko du. Nazioarteko filmak ikusteko aukera izango da. Sarrera doakoa da.

Musika

SAN PEDRO ELIZA

Larunbata 02, 19:00etan

SuBerri akordeoi orkestrak bere aurkezpen emanaldia eskainiko du. Estilo desberdinetako lanak entzun ahaliko dira. Hiru orbratan Pilar Catalina eta Amaia Lizarraga sopranoak izango dira laguntzen.

Hitzaldia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Osteguna 07, 18:00etan

PROSALUS elkarteak lagunak euren proiektuek hitzaldia eskainiko dute.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Ostirala 01-Ostirala 15

PROSALUS elkartearen "Osasuna eskubidea dela" erakusketa ikusgai izango da.

Andoain

Bertsolaritza

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 02, 21:30ean

"Ez gara Palestinaz ari" ikuskizunak antzerkia, bertso, musika, poesia... batzen ditu. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, Imanol Kamio piano jole eta akordeoi jolea, eta Aitor Atxega gitarra jolearen eskutik. Sarrera, 8 euro.

Herritarren txokoa

Marrakiz eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakiz eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Biyak Bat elkarteak kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxoaren amaiera arte ordaindu ahaliko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era. Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetzak ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak. 85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Korrika egiteko talde amateurra

Herriaren korrika egiteko talde amateurren sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Zita, ateri dagoen astelehenean 20:00etan hipodromoko zubian. Karakol eta bareak animatu!

18.korrika

Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekuetan daude salgai: Jalgi Kafantxokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Munterri-AEK-n. 12 euro balio duen txartela erosiaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioetan beharpenak eskuratzeko dituzte herritarrek.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Hemeroteka

Duela 1046 ale

1995eko urtarilaren amaieran Eroskik Atsobakarren hipermerkatua eraiki nahi zuelaren berri eman zuten TXINTXARRI aldizkariak. Pila zegoen zegoen gaia eta hipermerkatuaren informazioa eskaini zen. Esate baterako, 30.000 metro karratuko eraikuntza eta hipermerkatua eta 30 denda txiki izango zirela edo 200 lanpostu sortuko zituela adierazten zen.

Era berean, hipermerkatu honek sortu ahal zituen ondorioak ere aztertzen ziren laburki eta Jose Antonio Altuna, Usurbilgo alkatearen hitzak aurkezten ziren horretarako. Lanpostu berrien sorrera, merkatal-guneak emango zituen diru-sarrerak edo kontsumitzaileek gauzak eskuratzeko erraztasuna aipatzen ditu; aurka, berriz, dendari txikiak jasango zuten kaltea, gehienak Lasarte-Oriakoak, lur erabilgarrietan emango zen jaitziera edo izango zuten eragin sozio-kulturala.

Usurbil eta Lasarte-Oriako Udalen iritzia erabakiorra zen haien esku baitzegoen baimena ematea. "Erabakia hartzerako orduan kontu handiz ibili behar da, izan ere sail ugari izan behar dira kontutan [...] Hori aztertzen dugunean ikusiko da lurra saltzen dugun edota bestelako bidea hartzen dugun," adierazi zuten orduan Ana Urchueguia alkateak.

Eta alderdi politikoek, Aterpea elkarteak eta Geurea elkarteak hipermerkatuari buruzko informazioa jasotzen eta ondorioak aztertzen hasiak zirela ere adierazten zen artikulua horretan.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Unai Muñoa Bertsolaria

Barne mundua bertsoetan

■ 'Ez gara Palestinaz ari' emanaldia bihar estreinatuko da Bastero kulturgunean ■ Aitor Atxega gitarra joleak ere parte hartzen du proiektu honetan ■ Ez da ohiko bertso saioa

Bi urteko lanaren ostean, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariek Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariek batera "Ez gara Palestinaz ari" emanaldia aurkeztuko dute bihar Andoaingo Basteron. Musika eta bertsoak uztartuko dituzte, antzerkia eta poesia apur bat tartekatuz. Gitarra, akordeoia eta piano doinuak izango dira nagusi emanaldian zehar. Bestetik, bertso jarriak izango dira, doinu eta neurri ezberdinetan. Helburua, barne mundua aurkeztea.

Nerea EIZAGIRRE

Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsokideak izateaz gain oso lagunak ere badira eta duela bi urte ideia bat izan zuten, haien barne munduari buruzko emanaldi bat egitea. Ideia garatu, musikaz, antzerkiarekin eta umorez jantzi eta "Ez gara Palestinaz ari" lana aurkeztuko dute bihar Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariek batera. Unai Muñoa herritarrekin izan gara ekimen berezi honi buruz gehiago jakiteko.

Nola definituko zenue "Ez gara Palestinaz ari"?

Lagun batek ikusi du eta biluzte artistikoa bezala definitu du. Eta oso egokia iruditzen zait.

Nondik dator ideia?

Gure barne munduak ezagutu nahia eta gure burua lantzea Ander Lizarralderen eta nire ibilbidean ardatz izan dira. Gai askorekin identifikatzen gara, gai askoren inguruan hitz egin eta azkenean erabaki genuen hainbat gauza bertsoetan jartzea.

Bera hasten da, gai bat oso berea, oso intimoa erabakitzen, nik beste bat eta lehen bertso sorta prestatzen du bakoitzak. Ondoren hau konpartitzen dugu, iritzia trukatu dugu.



"Ez gara Palestinaz ari" ekitaldiaren karteletako irudian laurak.

Beraz, ez da ohiko bertso emanaldia?

Horrela da. Emanaldi hau egiterakoan ez gara abiatu bertso emanaldi bat egin nahi dugu eta ea zer egiten dugun. Ez. Mezutik abiatu gara eta konstatu nahi batetik.

Eta horrek ekarri du idearen garapena?

Bai, mezua joan da janzen. Bertsoa berez atera zitzaigun gure bidea delako, baina gero bestelako osagaiak joan dira etortzen.

"Hauek musikaz janzen baditugu indarra hartuko dute," konturatu ginen. Aitor Atxegarekin hitz egin genuen. Poliki-poliki ikusten genuen emanaldi osoa sakona zela, mami gehiegi zuela eta honi umorea sartu behar geniola...

Honela, eskura genituen baliabideekin jantzi da eta emaitzan hori da kuriosoena ze azkenean gureak ez ditugun baliabideak ere hartzen ditugu. Bertsoetan ibiltzen gara, baina halako batean, kantari bihurtzen gara eta bat batean antzezle. Eta alde horretatik esperientzia potentea da oso.

Zergatik jarri diozue "Ez gara Palestinaz ari" izena ekitaldiari?

Bereziki gu oso abilak gara filosofatzen eta teorizatzen. Palestina gora eta Euskal Herria behera. Sozialismoa



Ander Lizarralde, Unai Muñoa, Imanol Kamio eta Aitor Atxega asteazkenean Koldo Mitxelena liburutegian egindako aurkezpenarekin.

batetik eta feminismoa bestetik, eta hezkuntza eta pedagogia... Eta gai estratosferikoekin bueltaka aritzen gara.

Baina gero gutaz ez dugu hitz egiten eta gure beldurrak ez ditugu partekatzen. Gure intimitateak oso intimora eramaten ditugu, besteek gauzak ezkatuz gabilta, besteen epaien beldur...

Nolabait izen horrekin gure ideia azpimarratzea zen, goazen gutaz hitz egitera. Ez gara filosofatzen ariko makrogaie buruz, gu biluztera gatoz.

Zurekin, Aitor Atxega lasarteoriarrak ere ekitaldian parte hartzen du...

Aitor Atxega dago ia hasieratik. Segituan konturatu ginen bertsoak indartu behar genituela eta orduan musika izan zen burua etorri zitzaigun lehen gauza eta Aitorrengana jo genuen. Aitor berehala animatu eta lanean hasi ginen.

Gero Imanol Kamio iritsi zen. Hernaniko piano jolea eta musika eskolako irakaslea da eta musika ongi dominatzen duen tipoa.

Aitor eta Imanol guretzat pertsona berriak dira nolabait esateko. Nik Aitor aspalditik ezagutzen dut, baina maila honetan ez.

Laurok integratu ginenetik etengabe egin dugu lan eta hori ere interesgarria da.

Aipatu duzue laguntza handia izan duzue...

Guk laguntza eskatu genuen ez daukagulako segurtasuna hainbat zatitan. Antzerkian ez

ginen hain seguru, kantagintzan ere ez. Emanaldi batek, ordu eta hamar irauten du gureak, hari bat izan zezan, ondo ulertu zedin...

Eta hori da prozesu honetan beste zati garrantzitsua, laguntza eskatzen jakitea.

Emanaldia prestatu ondoren, aukeratu genuen dozenako lagun talde bat, tartean zeuden aktoreak, bertsolaria, ... espektro zabal bat zegoen eta bakoitzak zer egin bat zeukan bertsolariek testua batik bat, musikariek kantua, antzerki zuzendariak antzerkia... eta ekarpen saio bat egin genuen. Ordu eta erdiz egon ginen isil-isilik apuntatzen.

Ekarpen horiek izan dira azkenik erantsi dizkiogunak, gure filotrik pasata eta emanaldia borobiltzen saiatu gara.

Gairen bat aurreratu dezakezu?

Anderrek sorta bat du minaren herentzia deitu duena.

Belaunaldiz belaunaldi gure minak eta frustrazioak transmititzen eta herentzia hartzen ditugula, kate familiar horietan hainbat mamu datoz eta gerora irauten dutenak.

Beste sorta batean ume-aroko bakardadeaz hitz egiten dugu edo utzikeriari buruz edo bizitzan hartzen ditugun jarrei buruz...

Bat batekora ohituak egonda, zein ezberdintasun ikusi dituzue lan hau egitean?

Guretzat mezuan dago desberdintasuna.

Seguraski ni bertsoetan nagoanean nik irudi bat ema-

ten dut eta jendeak ikusten nau eta zerbait salduko dut. Baina horrelako lanak ematen dizun aukera da ordu eta hamarreen mezua garbi uzten, ekarpen bat egiteko, lan on bat egiteko.

Bertsoa bat batekoa da eta saiatzen gara ondoen egiten baina hau ahalik eta bertsoen onenak egin, musikatu, mezu garbi bat izan, helburu bat izan...

Guretzat polita izan da ez delako bakarrik kantatzea, plaza bat egitea, baizik eta guk honetaz hitz egin nahi dugu eta hau zabaldu nahi dugula.

Eta nolako harrera izatea espero duzue?

Gu publiko aurrera goaz asko ematen eta hori da guk daukagun sentsazioa.

Eta badakigu batetik publikoak bi bide dituela nagusiki. Batetik gu epaitu eta sar daiteke gaiak kritikatzera, gogorra egiten zaiolako edo gu pertsonalki epaitzea edo kritikatzera.

Eta hori da guk onartzen duguna. Gero hori kudeatu beharko dugu, kritikatu izatea edo enpatia ezarekin topatzeko aukera.

Beste bidea izango da eta hori da gure helburua, galdera ikurrak uztea, gurekin identifikatu daitekeen norbaitek bere barrura begira araztea. Guk uste dugu gehienok trampa berdinetan gabiltzala eta identifikatzen ditugula eta enpatizatzen gaitzala.

Orduan nik uste publikoak gauza askotan bere burua ikusiko duela edo ikusi ahalako. Ez du hotz utziko, batera edo bestera jarrerak sortuko ditu eta erantzun asko edukiko dituela uste dut.